

2025/2026 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da otsailaren 3tik 14ra (biak barne) izango dela 2025-2026 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurrematrikulatzeko epea. Matrikula eskaera egiteko hitzordua hartu beharko da usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz edo 943361216 telefonora deituz.

Bestalde, **urtarrilaren 25ean**, larunbata, **ATE IREKIAK** izenez ezagutzen den saioa izango dugu. Bi saio eskainiko dira: 10:00etan eta 11:30etan. Agerialde eraikin parean (Alperroburu, 5. zk.) elkartuko gara. Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko dugu eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz (haurrekin etor zaitezke). **Bertaratzeko interesa duenak, urtarrilaren 23a baino lehen, izena eman beharko du [galdetegi hau](#) betez. Anima zaitzete!**



Jangela-zerbitzua

Urtarrileko jangelako bazkaldarrek izango duten menua honakoa da:

◆ 3-16 urtekoen menuak

[Urtarrileko menua](#)

[Urtarrileko alergia eta intolerantzien menua bereziak](#)

◆ Haur Eskolako (0-3 urte) menuak

[Haur Eskolako menu orokorra](#)

[Haur Eskolako alergia eta intolerantzia menuak](#)



HAUR HEZKUNTZA

Material-kobrantza

Urtarrilaren 16an, hileko erreziboarekin batera, HHko ikasleei 2024/25 ikasturteko eskola-materiala kobratuko zaie. Materialaren kostua, **38,50 €** izango da.



Baso-eskola

Datorren asteartean, Urtarrilaren 21ean, HH3ko haurrak BASO ESKOLAKO SAIOEKIN HASIKO DIRA.



LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak

LH 2ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIAU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LH5 eta LH6 mailakoekin saioak

Datorren asteartean, asteazkenean, ostegunean eta ostiralean LH5 eta LH6ko ikasleek Harremanak taldearen eskutik hainbat saio egingo dituzte. Bertan landuko diren gaiak, besteak beste, tratu onak, hezkidetzak, adimen emozionala, sexu-heziketa...



III Xake tailerra eta topaketa

1. Urtarrilaren 24an, ostiralarekin, 17:30etatik 19:00etara, **III XAKE TAILERRA** Sutegi Liburutegian. Saio hau 6-9 urte bitarteko haurrei zuzendua dago (LH 1- LH 4), eta bertan xakeari buruzko oinarrizko ezagutzak azalduko dira; ondoren, partaideek torneo txiki bat jokatuko dute. Irakaslea: Breogan Estevez, Sutegi liburutegiko liburuzain-laguntzailea eta Xake jokalaria. Izen-ematea: Sutegi Udal Liburutegian.



Usurbilgo Udala

2. Urtarrilaren 31n, 17:30etatik 19:00etara, **III XAKE TOPAKETA** Sutegi Liburutegian. Saioa 10 urtetik gorako gaztetxoei zuzendua dago (LH5etik gora), eta bertan parte hartzeko, xakean jolasten jakin behar da. Partaide guztiek elkarren kontra jokatuko dute. Irakaslea: Breogan Estévez, Sutegi liburutegiko liburuzain-laguntzailea eta Xake jokalaria. Izen ematea: Sutegi Liburutegian.

DBH

Irteera DBH1

DBH1. mailako ikasleak, Plastika ikasgaiaren barruan, datorren asteazkenean, urtarrilak 22, Tabakalerara joango gara. Bertan, Medialab eta hezkuntzako-taldearekin kultura garaikideari gerturatu eta lantegi ezberdinak egingo ditugu. Horretaz, gain, Tabakalerako eraikina ezagutu eta bertan dauden proposamen eta aukerak ezagutuko ditugu.

(Mugi txartela ekarri behar dute)



III Xake topaketa

Urtarrilaren 31n, 17:30etatik 19:00etara, III XAKE TOPAKETA Sutegi Liburutegian. Saioa 10 urtetik gorako gaztetxoei zuzendua dago (LH5etik gora), eta bertan parte hartzeko, xakean jolasten jakin behar da. Partaide guztiek elkarren kontra jokatuko dute. Irakaslea: Breogan Estévez, Sutegi liburutegiko liburuzain-laguntzailea eta Xake jokalaria. Izen-ematea: Sutegi Liburutegian.



Usurbilgo Udala